

DICCIONARIO BIOGRÁFICO DE LOS DIPUTADOS GENERALES, BURÓCRATAS Y PATRICIOS DE BIZKAIA (1800-1876)

Joseba Agirreazkuenagak zuzenduriko taldea
Bizkaiko Batzar Nagusiak, Bilbo, 1995

Liburu mardul hau, autore askoren emaitza izateaz gain, taldelan trinko eta sakona ere badugu. Euskal Herriko Antzinako Erregimena ikertzen ari da talde hau, EHU/UPVko katedraduna eta Eusko Ikaskuntzaren lehendakari-ordea den Joseba Agirreazkuenagaren zuzendaritzapean. Ez da taldearen lehen emaitza: epe luzean garatu behar den egitasmu baten fruitua da, baina lehenago ere Euskal Herriko parlamentarien hiztegi biografikoa argitara eman du (*Diccionario de los parlamentarios de Vasconia*, Eusko Legebiltzarrak kaleraturiko liburua), eta etorkizunean ere antzeko obrak onduko ditu, taldea Arabako eta Gipuzkoako diputatu eta burokraten hiztegiak prestatzen ari baita.

Oraingo hau garrantzitsua da arrazoi batzuegatik. Lehenengo eta behin, gure erakunde propioetan lan egin zutenen berri ematen digulako. Ez bakarrik kargu politikoak, hau da, hautetsiak, baita burokraten eta Bizkaiko administrazioaren kudeaketako bestelako gizaki pisuzkoen berri ere ematen digute autoreek. Izen ezagun eta ezezagunak, zeinen datuak orain arte erabat ineditoak ziren, biltzen dituzte egileek hiztegi honetan.

Bigarrenik, liburu hau garrantzitsua da Euskal Herriko Gaur Egungo Historiaren garai ezin inportanteagoaren berri ematen digulako: Antzinako Erregimenetik Aro Modernorako pasarte hori. XIX. mende hasieratik 1876.

urtera arte luzatzen den tarte hartan, gure erakundeek bilakaera nabaria pairatzen dute, garai berrietara moldatu behar baitira. Gatazka anitzeko garaia, gure herriak 76 urte haietan hiru gerra sufritu behar izan baitzuten: Gerra Napoleonikoa (badakigu zer jokabide funtsezko burutu zuen Euskal Herriak, batez ere Gerraren azken partean, eta zer ondorio txarrak ekarri zizkion, hala nola Donostiaren suntsiketa), eta bi karlistadak. Gizarte baten isla dira, nola ez, Batzar Nagusiak eta Foru Gobernua. Benetako demokraziarako bidean, *Ancien Régime*-ko elitismoa baztertu eta gehiengoaren parte hartzea onartu behar dutenean, baina aldi berean betiko izaera galdu gabe, Batzarretan lan egiten dutenen nortasuna eta datuak ezagutzea ezinbestekoa da gaurko gure historia behar bezala ezagutzeko. Talde zuzentzaile horren ezaugarriak eta bere portamoldearen zergatia ulertzeko, derrigorrezkoa dugu talde edo, nahi bada, elite horren partaideen biografiak ezagutzea.

Hirugarrenik, liburu eta ikerle-talde honen emaitza da baita gure artean gehiegi landu ez den genero bat berreskuratzea eta bere garrantzia berriro ere azpimarratzea: prosopografia da histori genero hori, Europako beste lurraldeetan gaur egun jorratzen dena, etekin ezin hobeagoekin, eta Euskal Herrira Agirreazkuenaga doktoreak ekarri duena. Bere inguruan, Euskal Herriko Unibertsitateko Gaur Egungo

Historia Sailean eta Eusko Ikaskuntza-ren Historia Sailean talde sendo bat gihartu da. Agirreazkuenagak berak, Mikel Urquijok (biok liburuaren koordinatzaile eta argitaratzaileak), J.M. Beaskoetxeak, Juan Graciak, F. Martínezek, Rafael Miezak, Juan Antonio Moralesek, J. Pérezek, Susana Serranok, Juan Ramón Urquijok eta Lola Valverdek Euskal Herriko artxibategi pribatu zein publikoak miatu eta biografiatuen datuak bildu dituzte.

Metodologiari dagokionez, pertsonaiak hautatzeko orduan bi izan dira irizpideak: alde batetik, Bizkaiko Batzar Nagusietan hautetsitako aldunak, elite artezkaria, hau da, Bizkaiko gobernukideak. Beste alde batetik, elite ekonomikoa ere ardatz dugu liburu honetan. Orotara, 129 pertsonaia, Diputazio buruak, Gobernu idazkariak, aholkulariak, Gorte-komisionatuak, Oñatiko Unibertsitateko errektoreak eta elite ekonomikoa. Pertsonaia guztiei buruz ematen dira beren biografi datuak (jaiotza eta heriotza datak, izen-abizenak, hezkuntzari buruzko datuak, lanbidea...), beren ekintza politikoak (Batzar Nagusietan, batik bat), beren egoera ekonomikoa (ondasunak), ohoreak (noblezia, dominak), beren literatur ekoizpena eta beraiei buruzko bibliografia eta iturburuak. Horrekin batera, biografiatuaren erretratua eta sinadura.

Banan banan eta alfabetikoki garratzen dira pertsonaia hauen guztien biografi datuak, fitxa moduan. Lehenik eta behin, izen-abizenak aipatzen dira. Nahikoa lan, askotan pertsonaia batek baino gehiagok izen eta lehen abizen berdinak baitzituzten, gehienetan noski aita-semeak izanik. Horregatik, oso garrantzitsua da guztien filiazio osoa eman ahal izatea. Lehen biografi datu sorta honetan jaiotze-data, gurasoen izena, ezkontza, seme-alabak eta Foru

Aldunditik at garatutako gainontzeko karguak (batez ere udal administrazioan) ageri dira. Baita, modu laburrean bada ere, gainontzeko “notable” edo jauntxoekiko harremanak ere. Eta puntu hau ezin garrantzitsuagoa iruditzen zaigu, pertsona-sareak alegia. Gero aipatuko dugunez, agian aurrerantzean gehiago eta sakonago landu beharreko arloa dugu hauxe.

Fitxan, bestalde, pertsona hark Batzar Nagusietan egindako lanak ere aipatzen dira: hiri zein elizateko ordezkari moduan –honi dagokionez oso esanguratsua da jakitea nola pertsona bakoitzak bere bizitza osoan ordezkartzen dituen oso herri ezberdinak–, goi-karguak, komisioak, eta abar. Lanaren alde esan behar da irizpideak ohi baino zabalagoak izan direla, alegia pertsona bakoitzak izan dituen kargu, lan eta betebeharrak instituzional guztiak, ez bakarrik goi-karguak edo kargu hertsiki politikoak. Hauek batez ere fitxaren hurrengo atalean ageri dira, zeina kudeaketa politiko-administratiboari baitagokio.

Argi dago honela hobeto uler dezakegula pertsona bakoitzaren bizitza, behintzat bizitza publikoa. Hala ere, faltan dugu interpretazio gehiago. Hori, dudarik gabe, liburu honen zereginetik kanpo dago: ia seiehun orrialde ditu aleak, eta argi eta garbi uzten dute autoreek hau “diccionario” bat dela. Uste dugu, ordea, lantalde honen hurrengo zeregina hemen azaltzen diren datuen interpretazioa izan behar dela, pertsona-sareetan murgilduz eta testuingurua kontutan hartuz. Ikerkuntza-urte askotako lana denez, hemen hasitako bidetik abiatuta gure historiaren hainbat eta hainbat puntu argi daiteke.

Fitxan badago beste atalik: ondasunak eta errentak aipatzen dira, modu laburrean bada ere. Hemen ere beste

abiapuntu bat dago, hurrengo ikerketarako, arlo ekonomikoa aztertzeko. Gero iturriak eta bibliografia ere aipatzen dira, eta azkenik, bitxikeria moduan, pertsonaiaren sinaduraren faksimila. Batzuetan –ez da beti posible izan– biografiatuaren erretratua ere agertzen da. Biografiak, luzera oso ezberdinekoak –lerro bakan batzuetatik sei orrialdetara, pertsonaiaren garrantziaren eta berari buruzko lortutako datuen arabera–, zenbakituta daude.

Hauxe da, beraz, liburuaren *corpus*-a. Lehenago biografiatuen zerrenda agertzen da; hala ere, ez da agertzen bakoitzari dagokion orrialdea. Ondoren, Bizkaiko aldunen zerrenda (1812-1876), kargu zehatza eta hautatzeko modua. Egindako Batzar Nagusien zerrenda dator gero (1800-1877), eta XIX. mendeko kronologia labur bat (1876. urtera arte). Liburuaren amaieran, bibliografiarekin, kontsultaturiko artxibo, aldizkari, iturri ikonografiko eta liburutegiekin batera, aurkibide onomastiko bat agertzen zaigu, aurreko pertsonen zerrenda baino osoagoa (hemen, gainera, biografiaren zenbakia ere agertzen da). Zerrenda honetan, biografiatuez gain, aipatzen diren beste pertsona guztiak ere ageri dira. Ezin baliagarriagoa, kontutan harturik liburuan faltan bilatzen dela aipatutako pertsonaia guztien harremanen argibidea, eskema baten bitartez bada ere. Bada-kigu hori izan daitekeela hurrengo ikerketarako gaia, eta hau oinarria baino ez dela, oso oinarri finkoa gainera. Hala ere, hainbeste izen isolatutan galtzeko arriskua nolabait saihesteko, onuragarria izango zatekeen halako gida bat. Bestalde, irakurleak salto egin behar du biografia batetik bestera, biografiatuen arteko erlazioak behar bezala ulertzeko. Berdintsu esan daiteke aurkibide toponimikoari buruz: liburu guztietan ezin beharrezkoagoa bada, areago honetan, biografiatuen interesak hain

loturik egonik, gehiene-tan, herriei eta lurri. Tokian tokiko interesen mapa edo eskema bat ez zegokeen gaizki.

Hala ere, aitortu behar dugu autoreek lan eskerga egin dutela, lan oinarrikoa –eta hori oso garrantzitsua da ikerkuntzan– aurrerantzean, lantaldeak berak, taldekideek edo bestelako historialariek, ikerketa partzialagoak, alderdi batean sakontzeko eginak, garatu ahal izateko. Hauxe dugu, beraz, lan honen garrantzia eta bere osagarriak diren beste batzuen ere: funtsezko datuak eskuratu eta ordenatuta eskaini, eta horrela, espektakularitatea alde batera utzita, gure historiografiaren hutsune handia bete eta bide berriak ireki. Amankomuneko lana garatuz, bestalde, eta hori azpimarratzekoa da, Pernaldoren egia bada ere askotan errepikatu behar baita behar-beharrezko ditugun zenbait ekimen taldeen bitartez bakarrik burutu daitezkeela. Ez da meritu txikia taldeak sortzea eta koordinatzea. Are handiagoa da meritua, taldea iraunkorragoa bada, eta urte batzuetan etekin opa-roak ematen baditu.

Gizarte historia dugu hauxe, euskal gizartearen garapena ikertzen baitu liburu honek. Eta, autoreek berek diotenez, boterearen historia ere bai. Mikrohistoria bada ere, gizartearen zati bat, gizatalde txiki bat ikertzen delako. Hona hemen obra honen emaitza nagusietako bat: historiografia korrante berriak Euskal Herriratzea (prosopografia, mikrohistoria). Talde honi esker ezagutzen ditugu korrante horiek, herri honen gaietara aplikatuta gainera, fruitu ezin hobeak eman dituelarik. Aurrerantzean ere garai eta gai honi buruzko etekin sakonak eskainiko dizkigulakoan gaude.

Javier Díaz Noci